

Saint Martin d'Arberoue



Donamartiri

Bulletin municipal n^o 8

8. herri aldizkaria



2022

Le mot du maire :

Le bilan de l'année 2021 ne peut se faire sans prendre un peu de recul face à la pandémie de COVID 19 qui nous a encore touché et qui a eu un impact sur la vie de chacun de nous. Malgré l'incertitude qui régnait, je me réjouis des événements organisés par les associations du village notamment les animations de l'été, le repas des villageois, les rassemblements du club Adin Ederra, etc. Ces manifestations nous ont permis de retrouver un peu la « vie d'avant ».

Je tiens également à saluer la collaboration entre l'équipe éducative, les agents municipaux et les élus en charge du volet social qui ont mis tout en œuvre pour répondre aux exigences liées à la crise sanitaire tout en veillant au bien-être de tous les élèves aussi bien dans l'apprentissage, la restauration ou dans l'accueil périscolaire.

Au sein de l'équipe municipale nous poursuivons notre réflexion concernant l'aménagement du bourg. Après la première phase de concertation auprès des Donamartiritars, nous travaillons en collaboration avec le CAUE (organisme public : Conseil Architecture Urbanisme et Environnement) qui a établi un diagnostic de la situation actuelle. Notre objectif est de conforter la centralité du bourg par l'aménagement d'espaces publics multi fonctionnels et multi générationnels. Comme pour tous les projets déjà réalisés, nous irons à la recherche de financements publics pour que l'impact financier soit minime pour la commune et ne touche ni l'équilibre du budget ni l'imposition des ménages.

Je souhaite que Donamartiri soit un très bel espace d'épanouissement et de bonheur pour chacun de vous !

Suite à la dégradation de la situation épidémiologique, j'ai le regret de vous informer qu'il n'y aura pas de cérémonie des vœux 2022. Néanmoins, le conseil municipal se joint à moi pour vous souhaiter une très bonne année 2022 à tous !

Auzapezaren hitza:

2021 urteko bilana ezin daiteke egin, oraino hunkitzen gaituen eta gutarik bakoitzaren bizian eragin bat ukan duen COVID 19aren ondorioak neurtu gabe. Duda-mudak izanik ere, herriko elkarteek gertakizunak antolatu dituzte, hala nola udako animazioak, herritarren apairua, Adin Ederra elkartearen elkarretaratzeak, etab. Gertakizun horiei esker « lehengo biziaren » doi bat aurkitu dugu.

Hezkuntza taldearen, herriko langileen eta gizarte alorrearen ardura duten hautetsien arteko lankidetzak eskertu nahi nuke, osasun krisiari lotuak diren eskakizun guzietan ihardetsi baitiete, ikasleen ongizatea zainduduz, bai irakaskuntzan, ostalaritzan edo eskolaren inguruko harreran.

Herriko kontseiluan, herri barnearen antolaketari buruzko gogoeta jarraitzen dugu. Donamartiritarrekilako lehenbiziko elkar aditzealdiaren ondotik, gaur-eguneko egoeraren diagnostikoa egin duen CAUEarekin lankidetzan ari gara. Gure helburua, herri erdiaren zentralitateari indar ematea da, funtzio anitzeko eta belaunaldien arteko eremu publiko batzua antolatuz. Jadanik eginak izan diren proiektu guzietan arabera, diruztatze publikoen xerka joanen gara, finantza eragina ahal bezain ttipia izan dadin gure herriarentzat, eta aitzinkontuaren orekan eta familien zergetan ez dezan ondoriorik izan.

Desiratzen dut Donamartiri zure loratze eta zorientasun eremu ederrena izan dadin !

Egoera epidemiologikoaren degradazioaren ondorioz, damu dut informatzea ez dela 2022ko agiantzarik izanen.

Halere, herriko kontseiluarekin desiratzen dautzuegu 2022. urte berri on bat deneri!

Antton LARRABURU

Maire de Saint Martin d'Arberoue / Donamartiriko auzapez



Infos pratiques

La mairie est ouverte les mardis et vendredis, Maialen DELIART vous y accueille aux horaires suivants :

- Les mardis et vendredis : de 9:00 à 12:30 et de 13:00 à 18:00

Contact: 05 59 29 52 27 ou mairiearberoue@orange.fr

Informazio baliagarriak

Herriko Etxea astearteetan eta ostiraletan irekirik da, Maialen DELIARTek ondoko orduetan harrera egingen dizue :

- Astearteetan eta ostiraletan : 9:00tik 12:30ak arte eta 13:00tik 18:00ak arte

Kontaktua : 05 59 29 52 27 edo mairiearberoue@orange.fr

Rendez-vous / Kontaktuak :

- Antton LARRABURU, maire / auzapeza : 06 25 26 84 17
- Emmanuelle HARISMENDY, 1° adjointe / 1. axuanta : 06 75 51 37 87
- Nicolas ELISSALDE, 2° adjoint / 2. axuanta : 06 50 50 01 85
- Bernadette POCHELU, 3° adjointe / 3. axuanta : 07 60 01 10 65

Budget

Aurrekondua

Section de fonctionnement

Funtzionamendu saila

DEPENSES (€) GASTUAK (€)		RECETTES (€) DIRU SARTZEAK (€)	
Charges à caractère général (eau, EDF, assurances, voies et réseaux...) Karga orokorrak (ura, edf, asurantzak, bide eta sareak...)	47 121	Atténuation de charges Kargen arintzea	5 236
Charges de personnels Langile kargak	42 550	Produits des services Zerbitzuen mozkinak	1 097
Autres charges de gestion (indemnités, contribution organismes) Beste kudeaketa kargak (ordainsariak, erakundeei zergak)	62 955	Impôts et taxes Zergak	137 161
Charges financières Diru mailako kargak	2 506	Dotations et subventions (dotation forfaitaire, solidarité rurale) Hornidurak eta diru laguntzak (baserrialdeko elkartasun hornidura)	80 013
Charges exceptionnelles Ezohizko kargak	1 000	Revenus immeubles Eraikinen diru sartzeak	38 042
TOTAL DEPENSES GASTUAK OROTARA	157 132	TOTAL RECETTES DIRU SARTZEAK OROTARA	261 549

Section d'investissement

Inbertsio saila

DEPENSES (€) GASTUAK (€)		RECETTES (€) DIRU SARTZEAK (€)	
Acquisition matériel Materialaren erostea	4 997	Remboursement TVA BEZ diru-itzultzea	5 450
Voirie communale Bide obrak	42 032	Subvention département Departamentuko diru laguntza	10 500
Bâtiments communaux Herriko eraikinak	20 175	Subvention DETR Estatuko diru laguntza	994
Travaux bourg Herri zentroko lanak	1 162	Taxe d'aménagement Antolaketa zerga	3 921
Emprunt Mailegua	21 923		
TOTAL DEPENSES GASTUAK OROTARA	90 289	TOTAL RECETTES DIRU SARTZEAK OROTARA	20 865

3 taxes directes locales Lekuko 3 zuzenezko zerga	Taux année 2020 2020 urteko tasa	Taux votés en 2021 2021an bozkatutako tasak	Bases d'imposition 2021 2021ko zerga oinarriak	Produits 2021 2021ko mozkinak
Taxe Foncière Bâti Funts eraikiaren zerga	9,65	23,12*	212 000	49 014
Taxe Foncière non Bâti Funts ez eraikiaren zerga	27,34	27,34	28 300	7 737
TOTAL OROTARA				56 751

* taux du département additionné à celui de la commune pour compenser la perte de la taxe d'habitation.

* departamenduko tasa herriarenari gehitua izan zaio etxebizitzaren zergaren kentzea konpentsatzeko.

Etat civil

Egoera zibila

Naissances /Sortzeak



Louis GUELLE
Léo IRIBARNE
Aitor, Raymond CZAJA GUTIERREZ

Tiago, Hilario DE OLIVEIRA
Manohé, Antoine, Daniel MENARD
Eneko, Xan, Alain SAGARDOY

Décès /Heriotzak



Aña HARISMENDY
Etiennette POCHELU
Philippe AROTCARENA

Diplômés 2021



Félicitations aux jeunes et moins jeunes diplômés en 2021 et tous nos vœux de réussite pour les candidats aux diplômes en 2022 !

2021ko diplomatuak

Zorionak 2021an diploma lortu duten gazteei eta hain gazte ez direnei eta gure erreusitze agiantza guziak 2022an diploma bat lortzen entseaturako direnei.

Informations administratives

Pacte civil de solidarité (PACS)

Depuis le 01 novembre 2017, le Maire est compétent pour enregistrer les nouvelles déclarations, modifications et dissolutions de PACS.

Pour une déclaration de PACS, les futurs partenaires doivent s'adresser à la Mairie de leur résidence commune, ou chez un notaire.

Recensement militaire

Depuis le 1er janvier 1999, tous les jeunes ayant atteint 16 ans doivent se faire recenser à la mairie de leur domicile dans les trois mois qui suivent le seizième anniversaire.

La mairie délivrera une Attestation de recensement, qu'il est primordial de conserver. Celle-ci sera demandée pour toute inscription à différents concours et examens (CAP, BEP, BAC, permis de conduire etc.)

À la suite du recensement, les jeunes seront convoqués à la Journée Défense et Citoyenneté, organisée par le Centre du Service National.

Suite au recensement, s'il n'y a pas de déménagement entre temps, les jeunes sont directement inscrits sur les listes électorales.

Aides du Conseil Régional Nouvelle Aquitaine

Aide à la préparation de l'examen du permis de conduire B:

Sous conditions de ressources, les jeunes de 17 à 25 ans, en insertion professionnelle, issus d'une formation de niveau IV ou infra peuvent bénéficier d'un accompagnement financier allant de 400 € à 1200 € pour l'obtention du code et de la conduite s'ils entrent dans les critères d'éligibilité du nouveau règlement d'intervention entré en vigueur le 8 juillet 2019.

Administrazio informazioak

Elkartasun itun zibila (PACS)

2017ko azaroaren 1.az geroz, Auzapeza eskuduna da Elkartasunezko Itun Zibilaren deklaratzeeen, aldatzeen eta desegiteen erregistratzeko.

Elkartasunezko Itun Zibilaren deklaratzeko, partaide izanen direnek beren etxeko Herriko Etxearekin, edo notarioarekin, harremanetan sartu behar dira.

Errolda militarra

1999ko urtarrilaren 1.az geroztik, 16 urte dituzten gazte guzietan haien bizilekuko Herriko Etxean erroldatuak izan behar dira haien hamaseigarren urtebetetzea egin ondotik hiru hilabete barne.

Herriko Etxeak Errolda agiri bat emanen die, baitezpadakoa dena atxikitzea. Izan ere, agiri hau konkurtso eta azterketa ezberdinetan izena emaitako galdegina izanen da (Lanbide gaitasun agiria, Lanbide ikasketen brebeta, Baxoa, gidabaimena etab.)

Erroldaren ondotik, gazteak Zerbitzu Nazionalaren Zentroak antolatzen duen Defentsa eta Hiritartasun Egunera deituak izanen dira.

Erroldaren ondotik, helbide aldatzerik izan ezik, gazteak herriko hauteskunde zerrendan automatikoki sartuak izanen dira.

Akítania berri eskualdeko kontseiluko laguntzak

B auto permisa azterketaren prestakuntzarako laguntza :

Ahalmen baldintzen arabera, 17 eta 25 urte arteko gazteek, profesional gizarteratze, IV. maila edo infra formakuntza batetik ateraturik kodearen eta gidatzearen lorpenarako 400 eta 1200€ arteko diru laguntza eskura dezakete 2019ko uztailaren 8an indarrean sartu den araudi berriaren hautagarritasun baldintzetan sartzen badira.



Aide aux brevets : BAFA, BAFD et BNSSA

Sous conditions de ressources, les jeunes de 17 à 30 ans, domiciliés en Nouvelle-Aquitaine, peuvent bénéficier d'un accompagnement financier allant de 150 € à 400 € en fonction de la nature du brevet. (voir précisions chapitre centre de loisirs).

Crise sanitaire

Le contexte sanitaire ne nous permettra pas une nouvelle fois de nous réunir en grand nombre en ce début d'année.

Comme l'an dernier, le repas des aînés sera préparé par l'Auberge Goxoki et sera à emporter le dimanche 30 janvier.

Nous rappelons que la présentation du passe sanitaire est toujours en vigueur pour l'accès aux établissements recevant du public et que le port du masque reste un rempart efficace à la propagation du virus. Prenez soin de vous et de vos proches !

Élections Présidentielles et législatives 2022

Les prochaines élections présidentielles auront lieu les 10 et 24 avril 2022 prochain. Quant aux élections législatives elles se dérouleront les 12 et 19 juin 2022.

Les demandes d'inscription sur les listes électorales peuvent être effectuées et déposées à la Mairie ou bien effectuées sur internet en ligne. Informations sur <https://www.service-public.fr/>

Brebeterako laguntza : BAFA, BAFD eta BNSSA

Ahalmen baldintzen arabera, 17 eta 30 urte arteko gazteek, Akitania Berrian bizi diren gazteek, 150 eta 400€ arteko diru laguntza eskura dezakete brebetaren arabera (ikus xehetasunak aisialdi zentroko kapituluan).

Sanitario krisia

Egoera sanitarioarengatik, berriz ere ezingo dugu nunbre haundian bildu urte hastapen huntan.

Joan den urtean bezala, adinekoen bazkaria Goxoki ostatuak prestatuko du urtarrilaren 30an igandez, etxerat ekartzeko moduan.

Orroitarazten dugu pase sanitarioa beti beharrezkoa dela publikoa errezebitzen duten egituretan, eta maska beti babes modu emankorra dela birusaren hedapenaren kontra.

Zaindu zuen eta zuen senideen buruak.

2022ko lehendakari eta legegile hauteskundeak

Ondoko lehendakari hauteskundeak 2022ko apirilaren 10 eta 24an iraganen dira. Legegile hauteskundeak aldiz 2022ko ekainaren 12 eta 19an.

Bozka zerrendetan izena emaitako, galdera Herriko Etxean egin behar da, edo internetez ere egin daiteke : <https://www.service-public.fr/>

Éducation – Jeunesse :

École publique et SIVU

L'école publique de Saint Martin d'Arberoue est en RPI (Regroupement Pédagogique Intercommunal) avec l'école de Saint Esteben.

Les élèves en élémentaire sont à Saint Esteben avec Mme Caroline Etchebarne (directrice et enseignante en français) et Mme Mailis Ihidoy (adjointe et enseignante en basque).

Les enfants de maternelle des deux villages sont regroupés à Saint Martin d'Arberoue et sont tous en section bilingue avec Mme Tiffany Prince (directrice et enseignante en français) et Mme Audrey Lupiac.

Les enseignants du RPI sont secondés par l'équipe du SIVU qui intervient dans les temps périscolaires (bus, garderie, cantine et ménage) ainsi que sur le temps scolaire à la maternelle de St Martin d'Arberoue.

L'équipe reste stable avec Sylvie Pagadoy, Aurélie Biscaychipy, Patricia Jauréguiberry et Anaïs Durruty.

Hezkuntza – Gazteria :

Eskola publikoa eta SIVU egitura

Donamartiriko eskola publikoa Donoztiriko eskola publikoarekin RPI moduan ibiltzen da. Lehen mailako ikasleek Donoztirin ikasten dute Caroline Etchebarne anderearekin (frantsesezko erakasle eta zuzendari) eta Mailis Ihidoy anderearekin (Euskarazko erakasle eta zuzendari orde).

Ama ikastolako ikasleek Donamartirin ikasten dute, denek elebidun sailan : erakasleak Tiffany Prince (frantsesezko erakasle eta zuzendari) eta Audrey Lupiac.

SIVUko langileek RPI-ko erakasleak laguntzen dituzte eskola orduetatik kanpoko garaietan (autobusa, haurtzaindegia, kantina eta garbiketa), baita eskola-denboran ere, Donamartiriko ama eskolan. Taldea egonkorra da, Sylvie Pagadoy, Aurélie Biscaychipy, Patricia Jauréguiberry eta Anaïs Durruty-rekin.



Dans la continuité de la mise en place du self à la maternelle en septembre 2020, et à la demande des enfants de l'élémentaire, ce service est maintenant proposé à St Esteben. Cette pratique les responsabilise et les autonomise dans le rapport à la nourriture.

Pour toute demande concernant ces services, vous pouvez nous joindre par mail à sivu.ikasbide@gmail.com.

Aurélie, Sylvie et Patricia ont fait des bilans avec AEK en octobre 2021 pour évaluer leur niveau en langue basque. Aurélie a pour projet de suivre une formation pour perfectionner ses compétences en euskara. La mairie la soutiendra dans ce projet.

Actuellement l'enceinte de l'école en dehors des heures scolaires reste ouverte afin que les jeunes enfants sous la surveillance de leurs parents puissent bénéficier de la structure de jeux. Nous avons pu hélas constater à plusieurs reprises des incivilités sous le préau à la suite de week-end (présence de mégots de cigarettes, déchets divers). Nous voulons rappeler ici la nécessité de respecter et garder ce lieu propre pour les enfants.

2020ko irailan « self » moduko zerbitzua plantan eman ondotik Donamartiriko kantuan, orain Donoztirin proposatzen da ere lehen mailako ikasleer. Praktika horrek haurrak laguntzen ditu autonomia lorpenetan baita ere elikadurarekiko harremanetan.

Edozein eskaera balitz, e-mailez juntagarri gira sivu.ikasbide@gmail.com helbidean.

Aurelia, Sylvie eta Patricia-k AEKrekin bilanak egin dituzte 2021eko urrian beren euskal hizkuntza maila ebaluatzeko. Aureliak Euskara maila sakontzeko formakuntza segitzeko asmoa du. Herriko etxeak desmarta hortan lagunduko du.

Gaur egun, eskola-orduetatik kanpo, eskolako aire hartze eremuko jokoak zabalik segitzen dute, gurasoen zaintzapean. Maleruski, behin baino gehiagotan ikusi ahal izan ditugu inzibilizazioak asteburuetan (eskolako eremuan utzitako zigarroak edo hondakin ezberdinak). Artikulu hortaz baliatzen gira deneri orroitarazteko eremu hau errespetatu eta haurrentzat zaindu behar dela.



Centre de Loisirs Arberoan Alaiki

L'été dernier (du 08 juillet au 13 août 2021), l'accueil de loisirs bilingue Arberoan Alaiki implanté à Isturits dans les locaux de l'école publique a accueilli au total 99 enfants de 3 à 13 ans. Ce centre de loisirs accueille principalement les enfants des quatre communes de la vallée d'Arberoue (Ayherre, Isturits, Saint Esteben, Saint Martin d'Arberoue).

L'équipe était composée de deux directrices à mi-temps : Carmen Carceller et Karine Hildéral ainsi que de sept animateurs diplômés BAFA aidés par quatre stagiaires BAFA et une autre jeune animatrice.

Les enfants sont partis à la découverte de différentes communautés (inuits, gaulois, indiens, pirates, sorciers et artistes de cirque) par le biais d'activités manuelles, expressions corporelles, activités sportives ou expériences scientifiques. Une sortie a été organisée à Ttiki Leku, les autres ayant dû être annulées pour des raisons sanitaires. L'accueil de loisirs a été obligé de fermer ses portes deux semaines à cause de cas positifs au Covid. Un coup dur pour l'équipe qui a terminé la saison d'été de manière très particulière.

Le centre est également ouvert pendant les petites vacances scolaires (mais a dû être fermé pour les vacances d'avril 2021 à cause du covid) 70 enfants (dont 7 de Saint Martin d'Arberoue) ont profité du centre sur le thème du Carnaval pour les vacances de février.



Arberoan Alaiki aisialdi zentroa

Joan den udan (2021eko uztailaren 8tik agorrilaren 13ra), Izturitzeko eskola publikoko lokaletan plantatua den Arberoan Alaiki aisialdi zentroan, 3 eta 13 urte arteko 99 haur errezebituak izan dira. Aisialdi zentro horrek bereziki Arberoako ibarrako 4 herrietako haurrak errezebitzen ditu (Aiherra, Izturitze, Donamartiri eta Donoztiri).

Ekipan aurten atxemaiten ahal ziren : bi zuzendari denbora erdiz ari zirenak (Carmen Carceller eta Karine Hildéral), 7 AIGAdun animatzaile, AIGA formakuntzan ari ziren 4 laguntzaile, eta animatzaile gazte bat.

Eskulan, gorputz adierazpen, kirol edo esperientzi desberdinen bidez, haurrak hainbat komunitate desberdinen ezagutzen ibili dira (inuitak, galiarrak, indioak, piratak, sorginak eta zirko artistak). Ttiki Lekurat ateraldi bat gauzatu ahal izan da, bainan beste ateraldi guziak egoera sanitarioarengatik ezeztatuak izan dira.

Maleruski aisialdi zentroak pentsatu baino goizago bere atek hetsi behar izan ditu, Covid kasu positibo batzuegatik. Kolpe gogor bat taldearentzat, sasoina izigarri bitxiki bukatu duena.

Zentroa eskola opor txiekietan ere zabalik egoiten da (baina 2021eko apirileko bakantzetan itxi behar izan du, Covid-agatik). Otsaileko bakantzetan 70 haur (besteak beste 7 Donamartiriko) zentroa baliatu dute, ihauteriaren gaiaren inguruan.

Concernant les mercredis, le centre a une capacité d'accueil maximum de 40 enfants. Pendant l'année 2020-2021, 55 enfants l'ont fréquenté (6 de Saint Martin d'Arberoue). Environ 35 enfants sont présents tous les mercredis matin et profitent des diverses activités bilingues menées par des intervenants extérieurs



(danse, art thérapie, cirque, pelote). Trois animatrices (Aurélie Biscaychipy, Audrey Ipuay et Elorri Landaburu) proposent également des activités en tenant compte du rythme des enfants.

Si vous souhaitez obtenir des renseignements, n'hésitez pas à contacter Carmen Carceller par mail à l'adresse suivante : arberoanalaiiki@gmail.com ou par téléphone au 07.86.49.00.15.

Vous pouvez également contacter la mairie d'Isturits au 05.59.29.62.84 pour toute information concernant le fonctionnement du centre.

Le centre Arberoan Alaiki recrute chaque année des animateurs diplômés BAFA ou stagiaires BAFA. Une bonne opportunité pour nos jeunes qui veulent se former pour travailler l'été.

Formation BAFA (Brevet d'Aptitude Aux Fonctions d'Animateurs) :

La CAF des Pyrénées Atlantiques et la MSA Sud Aquitaine attribuent des aides financières sous condition pour la formation BAFA.

CAF : 10, avenue Maréchal Foch 64100 Bayonne tel : 3230

MSA Sud Aquitaine, Pôle Prestations sanitaires et Sociales :

1 Place Marguerite Laborde 64000 Pau tel : 05 58 06 55 00

Des bourses régionales peuvent également être sollicitées : <http://les-aides.nouvelle-aquitaine.fr>

Pour toutes informations concernant le BAFA-BAFD :

<http://www.jeunes.gouv.fr/bafa-bafd>

Asteazkenetan, zentroak gehienik 40 haur errezebitzeko gaitasuna du. 2020-2021 urtean, 55 haur ibili ziren (6 Donamartiriko). Gutti gora behera, 35 haur biltzen dira

asteazkenero, eta kanpoko animatzaileek eramanik elebidun aktibitateak baliatzen dituzte (dantza, arterapia, zirkoa, pilota). Horren osatzeko, zentroko, hiru animatzaileek (Aurelia Biscaychipy, Audrey Ipuay eta Elorri Landaburu) jarduerak proposatzen dituzte hurren erritmoa kontuan hartuta.

Informazioa lortu nahian, ez duda Carmen Carceller-ekin harremanetan sartzeko : arberoanalaiiki@gmail.com edo 07.86.49.00.15 telefonora.

Izturitzeko herriko etxearekin ere harremanetan sar zaitzke 05.59.29.62.84ean

Arberoan Alaiki zentroak AIGA tituludunak edo AIGA formakuntzan ari diren jendeak enplegatzeko dituzte urtero. Aukera ona udan lanean hartzeko formatu nahi duten gazteentzat.

AIGA formakuntza (Animatzaile Izaiteko Gaitasun Agiria) : Pirinio Atlantikoetako CAFek eta Hego Akitaniako MSAk laguntzen ahal dute.

CAF : Foch etorbidea, 10. 64100 Baiona. Tel : 3230

MSA Hego Akitania : Marguerite Laborde Ipaza, 1. 64000 PAUE. Tel : 05 58 06 55 00

Eskualdeko laguntzak ere eskatzen ahal dira : <http://les-aides.nouvelle-aquitaine.fr>

Edozoin informazioarentzat AIGA edo BAFD-i buruz :

<http://www.jeunes.gouv.fr/bafa-bafd>

Action sociale

Laguntza Etxerat

Laguntza Etxerat est une association qui a pour mission « d'aider moralement et matériellement les familles à tous les moments de leur existence » Elle se compose de différents services répondant aux besoins des différentes étapes importantes de la vie.

Pour se renseigner : Laguntza Etxerat 54 rue Francis Jammes 64240 Hasparren tel : 05 59 29 45 80 accueil téléphonique du lundi au vendredi de 8h00 à 16h30 (sauf jeudi).

SERVICES PETITE ENFANCE

- Ateliers futurs parents : se préparer émotionnellement et matériellement à l'arrivée de son enfant (service gratuit ouvert à tous les futurs parents du territoire d'Hasparren)
- LAEP Xirrixta : lieu d'Accueil Enfants/Parents partager un moment convivial, échanger avec des professionnels et d'autres parents
- Relais Petite Enfance (RPE)

Le Relais Petite Enfance est un service gratuit qui apporte écoute, information et animation auprès des familles, des parents employeurs, des assistantes maternelles, des gardes d'enfants à domicile et des enfants. Le RPE informe les parents sur les spécificités des différents modes d'accueil, fournit la liste des assistantes maternelles indépendantes et des Maisons d'Assistants Maternelles, procède à une préinscription pour la crèche Kuluxka à Hasparren et organise ponctuellement des conférences, soirées/débats ou des journées de formation.

Gizarte ekintza

Laguntza Etxerat

Laguntza etxerat elkartearen helburua da « heien bizi osoan familiak etxean laguntzea bai moralki bai materialki ». Zerbitzu ezberdinak osatzen dute biziki etapa inportanta guzietan errantzuteko.

Informazio gehiagorako : Laguntza Etxerat 54 Francis Jammes karrika 64240 Hazparne tel : 05 59 29 45 80

Harrera telefonoz astelehenetik ostiralera 8:00etatik 16:30ak arte (osteguna salbu).

HAUR TTIPIEN ZERBITZUA

- Guraso izaiteko tailerrak : emozionalki eta materialki haurren heldzeari prestaketa (zerbitzua urrik Hazparne lurraldeko guraso izanen diren guzientzat)
- Haurrak eta gurasoak errezibitzeko zerbitzua XIRRIXTA
Momentu goxo bat partekatu, profesional eta beste gurasoekin mintzatu
- Haur Ttipien Bilgunea (HBG)

Haur Ttipien Bilgunea urrik den zerbitzu bat da eta informazio, animazio eta beha toki bat eskaintzen du familieri, enplegatzailerik gurasoeri, haurzaineri, eta haurreri. HTBak gurasoak informatzen ditu harrera ezberdinen berezitasunetaz, aurkezten du independente diren haurzainen eta Haurzain Etxeen (MAM) zerrenda, aurre izen emateak kudeatzen ditu Hazparneko Kuluxka haruzaindegiarentzat, noiztenka konferentziak, gaualdi eztabaidak edo formakuntza egunak antolatzen ditu.

SERVICES D'AIDE À DOMICILE

Laguntza Etxerat vous soutient dans la gestion du quotidien avec respect, bienveillance et discrétion selon vos besoins spécifiques.

- aide à la personne : accompagnement spécifique pour le maintien de l'autonomie des personnes âgées, malade ou en situation de handicap (interventions ponctuelles ou régulières), retour d'hospitalisation. Plan d'Accompagnement Personnalisé : aide au lever et au coucher, à l'habillage et déshabillage, à se coiffer, à se raser, à la toilette, à la marche, accompagnement à la prise des repas et surveillance à la prise des médicaments, compagnie, stimulation
- gestion du quotidien :
 - o entretien courant du domicile : gestion du linge, ménage
 - o courses et déplacements
 - o préparation des repas
 - o compagnie : partager des moments de vie agréables
- garde d'enfants à domicile
- aide aux aidants familiaux

PORTAGE DE REPAS À DOMICILE / Centre Communal d'Action Sociale Hasparren

Le portage de repas permet de garder une alimentation équilibrée, notamment en cas de retour d'hospitalisation, d'isolement, de handicap ou toute autre fragilisation. Il peut être mobilisé de manière régulière mais aussi ponctuelle.

Repas livrés du lundi au vendredi avec possibilité d'avoir les repas pour samedis, dimanches et jours fériés. Pour tout renseignement téléphonez au CCAS : 05 59 70 29 07

ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Laguntza Etxerat bere sustengua ekartzen dizue zuen beharren arabera, errespetuan, harreman onetan eta diskretuki.

- laguntza berezitua autonomia mantentzeko pertsona adindunak, eriak edo elbarrituak direnentzat (puntualki edo erregularki), ospitaletik itzultzean. Pertsonalizatutako Laguntza Plana: jeiki eta etzate tenoreetan laguntza, beztitzeko eta biluzteko, orraztatze, bizarra mozteko, garbitzeko, ibiltzeko, apairuak hartzeko eta erremedioen kudeaketa zaintzeko, konpainia, estimulazioa
- eguneroko arduraketan :
 - o etxeke eguneroko kudeaketa : linja, garbiketa
 - o erosketak eta joan-etorriak
 - o apairuen prestaketa
 - o konpainia : momentu goxo bat pasatu
- etxean haurrak zaindu
- familiko laguntzaileer laguntza

ETXEETARAT APAIRU EKARTZE ZERBITZUA / Hazparneko Gizarte Ekintza Udal Zentroa (GEUZ)

Apairuen ekartze lanak elikadura orekatua mantentzea bermatzen du, batez ere ospitaletik sartzerakoan, edo isolatze, elbarritasun edo edozein hauste gertatuz gero. Modu erregularrean edo puntualki galdegin daiteke.

Apairuak astelehenetik ostirala arte ekartzen dira, larunbat, igande eta pesta egunetako apairuak eskuratzen ahal dira. Edozein xehetasunendako GEUZa deitu 05 59 70 29 07 zenbakirat.

QUELQUES NUMÉROS UTILES :

119 : Service National d'Accueil Téléphonique pour l'Enfance en Danger (SNATED)

3919 : Violence Femmes Info constitue le numéro national de référence pour les femmes victimes de violences. Il propose une écoute, il informe et il oriente vers des dispositifs d'accompagnement et de prise en charge. Ce numéro garantit l'anonymat des personnes appelantes mais ce n'est pas un numéro d'urgence comme le **17** qui permet pour sa part en cas de danger immédiat de téléphoner à la police ou la gendarmerie.

Transport solidaire

Ce service de transport solidaire déployé dans le territoire du Pays d'Hasparren est porté par des personnes bénévoles au sein d'une association. Il fonctionne du lundi au vendredi de 8h30 à 18h (samedi et dimanche selon les disponibilités des bénévoles).

BENEFICIAIRES :

Personnes n'ayant pas de moyen de transport, ayant besoin d'une aide occasionnelle ou régulière pour être accompagnées du domicile à un point fixe. Pour en bénéficier (faire sa réservation au moins 48 h à l'avance), appelez le référent communal Joëlle Erguy pour qu'ensuite le référent se mette en lien avec un chauffeur bénévole.

BÉNÉVOLES / CHAUFFEURS :

Les chauffeurs accompagnent les personnes de leur domicile jusqu'à leur lieu de destination et les reconduisent chez elles au moyen de leur propre véhicule. Une participation aux frais de 0,30€ par kilomètre parcouru est versée par le bénéficiaire au chauffeur directement.

Une cotisation annuelle de 3 € devra au préalable être versée à l'association « Transport solidaire en Pays d'Hasparren » Pour plus de renseignements, n'hésitez pas à contacter le référent communal Joëlle Erguy au 06 87 73 88 26.

TELEFONO ZENBAKI BALIAGARRIAK :

119: Lanjerran diren Haurren Harrera Telefoniko Zerbitzu Nazionala (SNATED)

3919: Bortizkeri Emazte Info (Violences Femmes Info) da bortizkeriak jasaiten dituzten emazteendako erreferentziazko zenbaki nazionala. Proposatzen du behatze bat, informatzen du eta bideratzen du laguntza eta kargu hartze dispositiboer buruz. Zenbaki horrek deitzen duten pertsonen anonimotasuna bermatzen du bainan ez da larrialdi zenbaki bat 17a bezala, poliziarri edo jendarmeriarri telefonatzen baimentzen duena berehalako larrialdi batentzat.

Garraio solidarioa

Hazparneko Lurraldean garatua den garraio solidario zerbitzu hori elkarte batek darama bere kide boluntarioekin. Astelehenetik ostirala arte dei daiteke 8:30 eta 18:00ak artean (larunbatetan eta igandetan boluntarioak libro badira).

NORENTZAT

Garraio baliabiderik ez duten pertsonak, noiztenkako edo modu erregularrean laguntza behar duten pertsonak etxetik puntu finko batera eramaiteko. Zerbitzu hori baliatzeko (erreserba egin 48 ordu aintzin), deitu Joëlle Erguy herriko erreferenteari, gidari boluntario batekin harremanetan sar dadin.

BOLUNTARIOAK / GIDARIAK

Gidariak behardunak heien etxetik helmugarat garraiatzen dituzte eta berriz heien etxerat ekartzen heien ibilgailuekin. 0.30€ kilometrokako parte hartzea galdegina da onuradunaren partetik gidariari zuzenean.

3€ko urteko harpidetza bat ordaindu beharko da aurrez « Hazparne Lurraldeko Garraio solidarioa » elkarteari.

Informazio gehiagorentzat, ez duda Joëlle Erguy herriko erreferentearekin harremanetan sartzea 06 87 73 88 26 zenbakira deituz.

Accueil des nouveaux donamartiritar.

Nouveaux habitants :

Depuis, l'an dernier nous accueillons individuellement les nouveaux habitants qui s'installent sur notre commune. Deux conseillers municipaux se rendent à leur domicile pour leur souhaiter la bienvenue et leur apporter des informations sur notre village. Cette année 2021 fut l'occasion de souhaiter la bienvenue à six nouveaux foyers.

Nouveaux-nés :

Également, lors de chaque naissance, la mairie offre aux heureux parents de choisir entre un plant de chêne ou de cerisier qui leur sera remis courant janvier-février.

Donamartiritar berrieri harrera

Herritar berriak :

Jaztik goiti, banaka harrera egiten zaie herrian instalatzen diren herritar berrieri. Bi kontseilari ongi etorria erraitera joaiten zaie eta herriko informazio desberdinak ekartzen. 2021 urte hortan sei famili berriri harrera egiteko aukera izan da.

Sortu berriak :

Bestalde, sortze bakoitzean, herriko etxeak guraso uroseri eskaintzen die haitzondo eta gereziando landare baten artean hautatzea, urtarril-otsailan eskuetan emana izanen zaiena.



Secourisme

Il n'y a pas eu de formation secourisme cette année 2021 faute de candidats. Les inscriptions sont ouvertes en mairie pour 2022. Dès lors qu'un groupe d'au moins 10 personnes sera constitué, la mairie mettra en place une session avec le concours des pompiers d'Iholdy. Nous rappelons que ces formations sont prises en charge par la mairie, donc gratuites.

Sokorria

Aurten ez da sokorri formakuntzarik izan hautagai faltagatik. Herriko Etxean 2022rako zabalik dira izen emateak. Gutxienez 10 laguneko taldea osatuko delarik, Herriko Etxeak saio bat antolatuko du Iholdiko Suhiltzaileekin. Orroitarazten dautzuegu Herriko Etxeak bere gain hartzen dituela formakuntza horiek, urririk dira beraz.

Ecobuage

L'écobuage est strictement réglementé et soumis à autorisation. Depuis quelques années, la commission agricole de la commune a souhaité élargir la commission écobuage à l'ensemble des éleveurs. Celle-ci s'est réunie en octobre en présence de Cécile Aguerre, conseillère de la Chambre d'Agriculture. Lors de cette réunion, la plupart des exploitations étaient représentées.

Il a été rappelé qu'en raison de la présence de troupeaux toujours positifs en agalaxie, la transhumance des troupeaux ovins est interdite sur la commune. L'entretien des parcours de montagne nécessite la pratique encadrée de l'écobuage. La préparation des chantiers avec réalisation de pare-feux et chemins d'accès nécessitera l'intervention d'une journée de bulldozer.

Un responsable a été nommé par secteur à écobuer pour répondre à la réglementation. La présence de la quasi-totalité des éleveurs à la commission a permis la rédaction de formalités administratives.

Les éleveurs n'étant pas les seuls bénéficiaires de l'entretien des parcours de montagne, il a également été décidé de faire appel à toutes les bonnes volontés pour venir en aide aux agriculteurs afin de préserver au mieux les zones boisées et les habitations. Les personnes susceptibles d'être disponibles sont priées de se faire connaître auprès du secrétariat de la mairie.

Mendiko suak

Mendiko suak zehazki arautuak eta baimenduak dira. Duela zombait urte, herriko laborantxa komisioak mendiko suen komisioa hazle guzietan hedatu die. Komisio hau Departamenduko Laborantza Ganbaran kontseilari den Cécile Aguerrekin bildu da urrian. Bilkura horretan, etxaldean gehiengo ordezkatua zen.

Orroitarazia izan da agalaxiari positibo emaiten dioten ardi tropak oraindik izanki, ardi borturatzea debekatua dela. Mendiko bideen entretenitzeak mendiko suen erabilpen arautua behartzen du. Suen gelditzeko bide eta sarbideen egiteak egun bateko buldozer erabilpena eskatzen du. Sektoreka, mendiko suen arduradun bat izendatua izan da, legediari erantzuteko. Hazle gehiengoak bilkura horretan izaitateak, urrats administratiboan idaztea ahalbidetu du.

Hazleak ez dira mendiko bideen erabiltzaile bakarrak. Deia zabaldua da nahi duen orok laguntza ekar dezan mendi horien garbiketan parte hartzeko, oihanak eta etxebizitzak babestuz. Libre diren eta interesatuak diren pertsonak herriko etxera hurbil daitezela.

Contrôle PAC :

La commune a été contrôlée sur l'ensemble des surfaces en pâturages permanents. L'éligibilité de ces surfaces dépend de certaines règles dites « d'admissibilité » calculées au prorata d'éléments pâturés sur ces surfaces peu enherbées.

Techniquement, ces visites ont lieu quand les photos satellites ne permettent pas à l'administration de statuer sur le prorata.

Lors de la visite sur le terrain, les parcelles ont été parcourues par le contrôleur en présence d'une élue. Le contrôleur a pris régulièrement des photos et a été particulièrement attentif à la présence d'au moins trois indices de pâturabilité : chemin d'accès, point d'eau, présence de bouses de vaches (interdiction de transhumance pour les brebis), herbe broutée...

Dans le cadre de la mise en œuvre de la Politique Agricole Commune, la Direction Départementale des Territoires a sélectionné notre commune pour effectuer un contrôle sur le terrain le 22 septembre dernier et un contrôle du cahier des enregistrements des pratiques MAEC (Mesures Agro Environnementales et Climatiques) le lendemain matin. Ce contrôle constitue une contrepartie des aides surfaciques perçues par la commune. Quelques irrégularités ont été constatées notamment la présence de broussailles impénétrables ou d'espaces boisés non enherbés. Les parcelles concernées de faible superficie impacteront peu la prime perçue par la commune en 2021. L'écobuage de ces parcelles prévue en 2022 permettra de percevoir à nouveau la prime comme auparavant. La tenue du cahier des enregistrements des pratiques MAEC a été validée par l'agent de l'ASP (Agence de Services et de Paiement).

PAC kontrolak

Donamartiri Herria azalera guztientzat kontrolatua izan da larre iraunkorrei dagokionez. Azaleren hautagarritasuna "onarpen" izeneko arauen arabera da, eta prorata bidez kalkulatu dira, belar gutti duten azaleretan larratzen diren elementuen tasari lotua.

Teknikoki, bisita hauek gertatzen dira sateliteen argazkiek administrazioari prorata buruz erabakitzen ez diotenean uzten.

Terrenoan egindako bisitan, kontrolatzaileak zatiak kontrolatu ditu hautetsi baten presentziarekin. Kontrolatzaileak argazkiak atera ditu, eta arreta berezia jarri dio gutxienez hiru larre-aztarnaren presentziari : sarbidea, urpuntua, behi kakak (ardientzako borturatzeta debekatua), belar jana...

Laborantza politika amankomunaren obratzearen barne, Departamenduko Lurraldeen zuzendaritzak gure udalerrria hautatu du joan den irailaren 22an terrenoko kontrol baten egiteko eta MAEC praktiken erregistroen kaiera kontrolatzeko biharamun goizean. Kontrol hori herriko etxeak ukaiten duen diru laguntzaren truke egiten da. Zenbait irregulartasun atxeman dira, batez ere, sasi iragazgaitzak edo belarrik gabeko oihan-guneak. Azalera txikiko lurzati horiek ez dute eraginik ukanen herriak 2021ean ukan diru laguntzetan.

2022an aurreikusitako lurzati horien garbitzeak, diru laguntzaren ukaitea ahalbidetuko du. MAECen praktiken erregistroen kaieraren edukia ASPko (Zerbitzu eta Pagamendu Agentzia) agenteak balioetsi du.

Fermage :

Les parcelles communales N° B429 et B432 ont été louées à M. Michel Echevertz dont le fils poursuit des études agricoles et souhaite s'installer en GAEC sur l'exploitation familiale prochainement.

Frelons Asiatiques :

Chaque année avec le retour du printemps et l'arrivée des beaux-jours, les reines de frelons asiatiques commencent à installer leurs nids. Afin de faciliter la destruction des nids et prévenir les attaques, le mieux est d'intervenir le plus tôt possible.

Le printemps correspond au moment de l'année où les reines sortent de leur hibernage et commencent à construire un nid pouvant abriter une future colonie. Le frelon asiatique s'installe dans tous types d'endroits, souvent à l'abri de la lumière trop vive, dans des buissons ou des haies, dans les arbres, sous les toitures des maisons ou les appentis de cabanes de jardin...

Ces nids primaires, gros comme une balle de ping-pong, grossissent progressivement jusqu'à devenir une structure de la taille d'un melon vers la mi-juin. S'ils passent souvent inaperçus à cette période de l'année, c'est pourtant à cette saison que leur destruction, nécessaire pour éviter à la colonie de se développer, est la plus aisée. En détruisant un nid dès le printemps, on réduit l'impact de l'espèce sur les abeilles et on diminue le risque de piqûres.

Pour lutter contre le frelon, et pour assurer la sauvegarde des abeilles, le pôle territorial du Pays d'Hasparren avait décidé il y a quelques années de former des bénévoles pour la destruction des nids (Alain Armendariz pour le secteur de St Martin d'Arberoue).

Dans le cas où le nid de frelons se situe à votre domicile, vous pouvez faire appel aux services d'une entreprise spécialisée ou bien contacter Alain Armendariz au 06 84 80 49 08 en lui fournissant la bombe insecticide appropriée.

Laborantxa lurren erabilpena :

B429 eta B432 herriko partzelak Michel Echevertz jaunari alokatu zaizkio. Haren semeak laborantxa ikasketak segitzen ditu eta GAECan kokatu nahi du familiako baserrian.

Leizor asiatiakoak

Urtero udaberriaren itzulerarekin eta egun ederren etorrerarekin, erreginak habiak jartzen hasten dira. Habiak suntsitzeko eta erasoei aurre egiteko, ahalik eta lasterren obratzea da onena.

Udaberrian erreginak hibernaziotik ateratzen dira eta habia baten egiten hasten. Leizor asiarra leku guztietan kokatzen da, batez ere argi bizietatik urrun, hesietan, zuhaitzetan, etxeetako teilatuen azpian edo lorategiko etxolen teilazpian...

Habia egin berri hauek, ping-pong pilota bat bezain handiak dira eta pixkanaka handitzen dira, ekaina erditsutan meloi baten izarikoak bilakatzeraino. Urte sasoi honetan, maiz ez dira oraindik ageri, baina beharrezkoa da aski goiz horien suntsitzea, kolonia ez dadin garatu. Udaberrian habia suntsitzean, leizor asiarak erleengan duen eragina murrizten da, eta ziztadak izateko arriskua ttipitzen.

Leizor horri aurre egiteko, eta erleak babesteko, duela zumbait urte Hazparneko lurraldeak habiak suntsitzeko boluntarioak formatzea erabaki zuen (Alain Armendariz Donamartiri eremuan).

Leizor habia zure etxean badago, enpresa berezitu bat deit dezakezu edo Alain Armendariz deitu 06 84 80 49 08 zenbakira bonba intsektizida egokia hornituz.

En revanche, lorsqu'un nid est repéré sur l'espace public ou sur les espaces communaux, il convient de le signaler en contactant directement la mairie au 05 59 29 52 27 ou bien un élu municipal.

Gestion des déchets

La déchetterie de Hélette

Horaires

- Les mardis et jeudis : 16h-19h
- Les samedis : 10h-12h / 13h-17h

Pendant les heures d'ouverture, vous pouvez joindre le gardien au 06 33 95 23 45.



La gestion des déchets est un enjeu écologique mais aussi économique qui impose à chacun un investissement dans sa vie quotidienne pour réduire, trier et valoriser nos déchets.

L'accès à la déchetterie est gratuit pour les particuliers qui peuvent y déposer leurs déchets ainsi que les déchets verts (dont le brûlage est interdit) afin que ceux-ci soient ensuite traités voire revalorisés.

Aldiz, habia bat ikusten denean kanpoan edo herriko espazioetan, herriko etxea deitu behar da 05 59 29 52 27 zenbakira edo herriko hautetsi bat.

Hondarkinen kudeaketa

Heletako ondarkintegia

Ordutegia

- Astearte eta ostegunetan: 16.00 – 19.00
- Larunbatetan: 10.00 – 12.00 / 13.00 – 17.00

Idekitze tenoretan, zaindaria dei daiteke 06 33 95 23 45-ra.

Hondarkinen kudeaketa garrantzitsua da ekologiari begira, baita ekonomiari begira ere. Bakotxaren engaiamendua galdetzen du eguneroko bizian, gure hondarkinak murrizteko, sailkatzeko eta balorizatzeko.

Partikularrei doakienez, hondarkintegiaren sartzea uririk zaie. Beren hondarkinak utz ditzakete baita hondarkin berdeak ere (hauen erretzea debekatua baita), tratatuak izan daitezen eta hoberenean berriz baliatuak ere.

Avant de vous rendre à la déchetterie, vérifiez ci-dessous que vos déchets soient bien pris en charge :

Hondarkintegira joan aintzin, jarraian begiratu, zuen hondarkinak onartuak izaiteko gisan :

Déchets ménagers Etxeko hondarkinak	Oui Bai	Déchets Amiantés Amiantarekilako hondarkinak	Non Ez
Textiles Arropak	Oui Bai	Batteries usagées Bateria zaharrak	Non Ez
Bois Egurra	Oui Bai	Piles usagées et accumulateurs Pilak eta metagailuak	Oui Bai
Cartons et papiers Kartoinak eta paperak	Oui Bai	Déchets électriques Hors d'usage Hor konpon diren hondarkin elektrikoak	Oui Bai
Déchets d'entreprises Enpresen hondarkinak	Oui (payant) Bai (pagatuz)	Encombrants ménagers divers Etxeko trabagarriak	Oui Bai
Gravats Obra hondarkinak	Oui Bai	Pneumatiques usagés Kautxu erabiliak	Non Ez
Déchets verts Hondarkin berdeak	Oui Bai	Déchets Diffus Spécifiques Hondarkin lauso bereziak	Oui Bai

La déchetterie est destinée notamment à la collecte des déchets encombrants (électroménager) et toxiques qui ne doivent en aucun cas, comme tout autre déchet, être déposés au pied des conteneurs répartis sur la commune.

Soyons des citoyens responsables, respectons notre environnement !

Le tri sélectif – les bons gestes

Le tri sélectif permet de lutter efficacement contre le gaspillage des ressources naturelles. Mais lorsqu'il est mal appliqué, c'est toute une logistique qui en pâtit. Pour aider les usagers à suivre les bons gestes du tri, la Communauté Pays Basque rappelle ces quelques règles pratiques qui peuvent aider les agents sur le terrain. Pensez-y, ce sont des personnes qui trient derrière vous, pas (simplement) des machines.

Hondarkin trabagarriak (etxeko tresnak) eta pozointsuak biltzeko egina da hondarkintegia. Hauek ez dira sekula utzi behar herrian dauden zikinontzien ondoan. Herritar arduratsuak izan gaitezen, gure inguremena errespeta dezagun !

Bereizketa selektiboa – jestu onak

Baliabide naturalen xahutzeari buru egiteko gauzatzen da bereizketa selektiboa. Bainan gaizki egiten denean, logistika oso batek pairatzen du. Erabiltzaileak bereizketa egiten ongi laguntzeko, araudi hauek oroitarazten ditu Euskal Hirigune Elkargoak, terrenoko langileen laguntzeko. Gogoan hartu, zuen ondotik bereizten ari diren jendeak dira, eta ez makina arruntak.

RÈGLE N°1 : NE METTEZ PAS DE SACS DANS LES BACS JAUNES

Les bacs jaunes accueillent les déchets recyclables en vrac tels que les bouteilles et flacons en plastique, les cartonnettes et briques alimentaires, les emballages métalliques, etc. Il est important de ne pas mettre de sacs fermés dans ces conteneurs car même s'ils contiennent des déchets recyclables, les agents de tri ne peuvent pas les ouvrir. En bac, c'est donc du vrac !

RÈGLE N°2 : TRIEZ SÉPARÉMENT LES POTS ET BOCAUX EN VERRE AINSI QUE LES TEXTILES

Des points de collecte spécifiques sont présents partout sur le territoire pour récupérer et valoriser ses ressources précieuses.

Les emballages en verre (pots, bocaux, flacons et bouteilles, et uniquement eux !) sont collectés, regroupés et partent directement en filière de recyclage pour recréer du verre d'emballage, sans passer par un centre de tri. Ne mettez pas dans ces conteneurs des assiettes ou des plats de cuisson, par exemple. Ils provoquent des malfaçons dans la production des nouveaux emballages en verre !

Les textiles sont aussi très largement réemployés. Vos vêtements, votre linge de maison et même vos chaussures, peuvent être recyclés, quelque soit leur état, même abîmés. Pensez simplement à les placer, propres et secs, dans un sac fermé (30 litres maximum) pour éviter l'humidité et à lier vos chaussures par paire. Aujourd'hui, tous les textiles se recyclent !

LEHEN ARAUA : ZAKURIK EZ EZARRI ONTZI HORIETAN

Hondarkin berziklagarriak jasaiten dituzte ontzi horiek : plastikazko botilak eta flaskoak, hazkurri kartoinak eta brikak, metalezko gainestalkiak etabar... Garrantzitsua da zaku hetsirik ez ezartzea ontzi horietan, hondarkin berziklagarriak ukanez ere, sailkatzen duten langileek ez baitituzte zabaltzen ahal.

BIGARREN ARAUA : ONGI BEREIZI BERINAZKO ONTZI ETA BOKALAK BAITA ARROPAK ERE BAI

Bilketa gune bereziak badira lurralde osoan baliabide baliotsu horien biltzeko eta balorizatzeke.

Berinzako gainestalkiak (ontzi, bokal, flasko eta botila, eta besterik ez !) bilduak dira, elkarretaratuak eta berziklatze sailara doatzi paketatzeke berina berriz sortzeko, bereizte gune batetik pasatu gabe.

Azieta edo platarik ez ezarri, adibidez. Makurrak ondorioztatzen dituzte berinzako gainestalki berriak ekoizten direnean !

Arropak nasaiki berrerabiliak dira. Zuen arropak, etxeko linja eta zapetak ere bai, berziklatuak izan daitezke, higituak izanik ere. Gehienik 30 litroko zaku hetsi batean ezarri behar dira, garbitu eta sukututa, hezetasuna saihesteko. Eta zapetak parezka lotu. Gauregun, ehun guziak berziklatzen dira !



RÈGLE N°3 : RAPPORTEZ VOS GROS CARTONS EN DÉCHETTERIE, CE SONT DES ENCOMBRANTS

Les gros emballages cartonnés bruns ne doivent pas être déposés avec le tri sélectif ou avec les ordures ménagères ! Rapportez-les en déchetterie, propres (ils peuvent être tachés mais pas imbibés), vidés de leur contenu (polystyrène notamment), dépliés et mis à plat. Ils seront réutilisés dans la fabrication de papier essuie-tout, de papier d'essuyage industriel ou d'emballage.

RÈGLE N°4 : NE DÉPOSEZ PAS VOS MASQUES USAGÉS AU TRI SÉLECTIF

Les masques jetables ne peuvent pas être recyclés. Ce sont même, potentiellement, des nids à microbes et à virus. C'est pourquoi, il est demandé de les mettre dans des poches fermées et de les jeter dans la poubelle d'ordures ménagères.

TOUT SAVOIR SUR LE TRI

Pour adopter les bons gestes du tri, téléchargez l'application du guide du tri. Pour chaque élément d'emballage d'un produit recherché, elle indique s'il est à trier ou à jeter et précise la bonne couleur du bac.

HIRUGARREN ARAUA : KARTOIN HAUNDIAK HONDARKINTEGIRA ERAMAN, TRABAGARRIAK DIRA.

Gaztain koloreko kartoin haundiak ez dira bereizketa selektiboa edo etxeko hondarkinen ondoan utzi behar! Hondarkintegira eraman, garbiak (tatxatuak izan daitezke bainan ez bustiak), hustuak (polistirenoa bereziki), deseginak eta zapalduak.

Xukatzeko paperen edo gainestalkien ekoizteko berriz erabiliak izanen dira.

LAUGARREN ARAUA : MASKA ERABILIAK EZ BEREIZKETA SELEKTIBOAN EZARRI

Botatzeko maskak ez daitezke berziklatu. Gainera, mikrobio eta birusen habiak izan daitezke.

Hortako, zaku hetsietan ezartzea galdegina da, eta etxeko hondarkinen ontzira botatzea


BEREIZKETAZ DENA JAKIN

Bereizte jestu onen ukaiteko, bereizketarako aplikazioa telekargatu.

Bilatu produktu bateko gainestalkiaren elementu bakotxari doakionez, erakusten du bereizteko ala botatzeko denez, eta ontziaren kolore ona zehazten du.

**POUR TOUT SAVOIR, TÉLÉCHARGEZ
DENA EZAGUTZEKO, TELEKARGA EZAZU**

**L'APPLI GUIDE DU TRI
BEREIZKETAREN GIDA APLIKAZIOA**



Réforme du Système de collecte des déchets

Le déploiement des nouveaux systèmes de collecte et notamment des nouveaux conteneurs initialement prévu en 2021 sera déployé en 2022 dans le cadre d'une réforme globale de collecte et de gestion des déchets au niveau de la CAPB

Trois lieux de collecte ont été identifiés. Parking du bourg, Kolorotz et à proximité du cimetière.

Une information complémentaire vous parviendra lorsque les nouveaux points de collectes seront opérationnels. Une réunion publique sera organisée durant le premier trimestre 2022 pour présenter le nouveau dispositif.

Une réforme de la tarification des déchets est également en cours de mise en place au sein de la Communauté d'Agglomération Pays Basque pour une mise en place en 2023 voire 2024. Nous vous tiendrons informés de tout élément relatif à sa mise en place.

Les ambassadeurs du tri

Dix-sept ambassadeurs du tri interviennent quotidiennement pour informer et sensibiliser à la bonne gestion des déchets ménagers et assimilés des usagers.

Coordonnés par une responsable, les ambassadeurs du tri s'organisent en réseau. Leur fonctionnement s'inscrit dans une logique de proximité. Leur mission principale est d'accompagner les collectivités dans leurs objectifs de tri et de valorisation des déchets. Les ambassadeurs du tri sont directement délégués à la Communauté de Communes du Béarn des Gaves et aux pôles territoriaux de la Communauté d'Agglomération Pays Basque. Ainsi, ils sont au plus près des usagers et de leurs préoccupations concernant les déchets.

Contact Pôle territorial Pays de Hasparren -
06 79 34 27 57 - Mattin PETRISSANS

Hondarkin bilketa sistemaren erreforma

Bilketa sistema berrien hedapena, eta bereziki 2021ean aurre ikusiak ziren ontzien hedapena, 2022an egingen da, Euskal Hirigune Elkargoaren baitan den hondarkinen kudeaketa eta bilketarako erreforma orokor baten kariatara.

Hiru bilgune identifikatuak izan dira : herri erdiko aparkalekua, Kolorotze eta hilerrietarik hurbil.

Informazio gehiago helaraziko dizuegu bilgune berriak baliagarriak izanen direlarik. Bilkura publiko bat antolatuko dugu 2022ko lehen hiruhilekoan, dispositibo berriaren aurkezteko.

Hondarkinen prezioen erreforma ere lantzen ari da Euskal Hirigune Elkargoa, 2023 edo berantetik 2024an plantan ezarria izaiteko. Horren araberrako elementu berrietaz jakinen atxikiko zaituztegu.

Bereizketaren enbaxadoreak

Hamazazpi bereizketaren enbaxadorek lan egiten dute egunero, erabiltzaileak informatzeko eta sentsibilizatzeko, etxeko hondarkinen kudeaketa onari begira.

Arduradun batek koordinatuta, enbaxadoreak sarean antolatzen dira. Funtzionamendua hurbileko logika batean txertatzen da. Kolektibitateen laguntzea da beren misio nagusia, hondakinak tratatzeko eta balorizatzeko asmoz. Enbaxadoreak dira zuzenean Biarnoko Herri elkargoko, eta Euskal Hirigune Elkargoko lurralde eremuetako ordezkariak. Horrela, erabiltzaileetarik eta haien kezketarik hurbil dira, hondarkinei doakienez.

Hazparneko Lurralde eremuko kontaktua
06 79 34 27 57 - Mattin PETRISSANS

Izpindar :



Izpindar :

Créée en juillet 2020, l'association Izpindar est passée de 7 à 60 adhérents en un peu plus d'un an, ce qui montre un réel intérêt des citoyens pour la transition énergétique ! Intérêt confirmé par une convention de trois ans signée avec la Communauté d'Agglomération Pays Basque, et un soutien financier apporté par le Fond de Caisse d'épargne.

Les adhérents agissent sur des projets individuels et collectifs sur les onze communes du Pays de Hasparren : Hasparren, Briscous, Ayherre, Labastide-Clairence, Mendionde, Hélette, Macaye, Isturitz, St Esteben, Bonloc, et St Martin d'Arberoue.

L'objectif est d'agir concrètement sur ces communes en informant et en formant les citoyens sur les questions de l'énergie, pour mieux appréhender les nombreux démarchages souvent peu scrupuleux, mais aussi pour pouvoir agir chacun à notre échelle.

L'association se déploie au fil des rencontres, des adhésions et des partenariats pour développer toutes les solutions d'énergie renouvelable, pour et avec le citoyen, en individuel ou en collectif, pour impulser des démarches de sobriété et d'efficacité énergétique.

A ce jour de nombreuses actions ont été menées, tel que des groupements d'achat d'installations photovoltaïques pour l'autoconsommation. Le premier comptait 8 installations, le deuxième en cours de planification en compte 18, une liste d'attente est d'ores et déjà ouverte pour le troisième. Le même type de groupement est à l'étude pour les chaudières à plaquettes suite au travail entamé sur le bois énergie. Une première étude et le lancement d'un projet photovoltaïque en autoconsommation collective est également à l'étude. Enfin un prototype d'éolienne domestique est en cours de développement (objectifs : réduire les coûts, facilité de fabrication et de réparation...).

2020ko uztailan sortua, urte batez Izpindar elkarteak 7 kideetik 60 kidera pasatu da, herritarren zinezko interesa energetiko transizioari buruz erakutsiz !! Interes konfirmatua Herri Elkargoarekin izenpeturitako hiru urteko hitzarmenaren bidez, baita ere Fond de Caisse d'épargne-en diru laguntzaren bidez.

Banakako edo kolektibo proiektuak lantzen dituzte kideek, Hazparneko lurraldeko 11 herrietan : Hazparne, Beskoitze, Aiherra, Bastida, Lekorne, Heleta, Makea, Izturitze, Donoztiri, Lekuine eta Donamartiri.

Helburua da herri horietan konkretuki ekintzak plantan emaita, biztanleak energiaren gaian formatuz, desmartzatze maltzur batzuetaz mesfidatzeko, baita ere bakotzak bere heinean ekintzetan aritzeko.

Elkartea topaketaz topaketa, kidetze eta partaidetza berrien bidez garatzen da, energi berriztagarri aterabide desberdinak xekatzuz, bakarrik edo kolektiboki energetiko zuhertasun eta eraginkortasun desmartzak bultzatuz.

Gaur egun ekintza ainitz eramanak izan dira, besteak beste auto kontsumozko fotovoltaiko instalazio eros taldeak sortuz. Lehena 8 instalazionez osatua zen, orain abiatua den bigarrenak 18 kondatzen ditu, eta goitatzeko zerrenda bat jadanik idekia izan da hirugarren proiektu batentzat. Ber elkartzeko sistema gogoetan da paletazko galdarentzat. Bestalde, abiatu da lehen estudio bat auto kontsumozko fotovoltaiko proiektu kolektibo bati buruz. Eta etxeko haize erroto prototipo bat ere lantzen ari da (helburuak : prezio apalekoa, ekoizteko eta konpontzeko errex...)

En lieu et place de la caravane d'information initialement prévue par l'association, 14 évènements ont été proposés lors de la semaine du climat organisée par la CAPB (cafés climat, conférence, formation, cinés débat). La caravane d'information en cours de construction est reportée au premier semestre 2022, dans les 11 villages, avec des temps d'information, de formation, et de réflexion. Un spectacle pour sensibiliser les enfants à ce sujet sera également proposé aux communes comme support d'animation. Au moment où les prix de l'énergie s'envolent, soyez acteurs dans des gestes de sobriétés énergétiques et dans la production d'énergie verte.

Vous souhaitez en savoir plus, contactez l'association :

Contact : contact@izpindar.fr - site : www.izpindar.fr ou sur facebook et instagram.

Herri Elkargoak antolatzen zuen klimaren astean, hastapen batean pentsatua izan zen info karabanaren ordean, 14 ekitaldi proposatuak izan dira (klima kafeak, hitzaldi, formakuntza, zine-eztabaidak). Eraikitzen ari den info karabanaren itzulia 2022ko lehen sei hilabeterat pentsatua izan da : 11 herrietan ibiliko da, informazio, formakuntza edo gogoeta tarteak proposatuz. Haurren sensibilizatzeko ikusgarri bat ere proposatua izanen da.

Energi prezioak airatzen diren garai huntan, izan zaitez zu ere aktore energetiko zuhurtasun jesteretan, baita ere energi berde ekoizpenean.

Xehetasun gehiagorentzat, harremanetan sartu :

contact@izpindar.fr -Webgunea : www.izpindar.fr edo facebook eta instagram-en.



Tourisme :

Stratégie tourisme 2020-2026 :

Après un diagnostic et une analyse du tourisme orchestré par l'agence « Protourisme » l'année dernière, le C.D.P.B. et la C.AP.B. ont organisé des débats sur les territoires entre le 1er décembre et le 12 janvier pour approfondir les défis du tourisme sur les quatre questions suivantes :

- Accueil et de découverte du territoire
- Hébergement
- Mobilité
- Environnement

Ces débats font suite au lancement par la CAPB de la réflexion sur l'élaboration du futur Schéma tourisme du Pays Basque, le 13 octobre dernier, qui s'est poursuivi par quatre conférences thématiques. La nouvelle phase de débat local permettra à la fois aux acteurs de la société civile et aux élus de définir des axes de développement pour un tourisme responsable et maîtrisé. Début 2022, la Commission tourisme reprendra la plume pour apporter une Contribution à la CAPB qui devra finaliser le Schéma et le faire voter par les élus communautaires.

Accompagnement pour l'émergence de projets d'action :

En parallèle, le pôle territorial d'Hasparren a pu bénéficier de l'accompagnement de l'AUDAP (Agence d'urbanisme Atlantique et Pyrénées) pour l'émergence de projets d'action touristiques. Les deux ateliers qui se sont déroulés en fin d'année 2021 ont permis d'identifier les pistes pour le développement d'un tourisme actif et non subi.

La vallée de l'Arberoue a été choisie comme support pour mener la réflexion sachant que les liens peuvent être réalisés avec le reste du pôle territorial d'Hasparren.

Il s'agit d'un tourisme qui propose de prendre le temps de découvrir le territoire, ses métiers, ses habitants, son histoire. Cela peut se traduire par la visite d'ateliers d'artisans d'art, d'exploitations, par une prestation de Raconteur de Pays, etc.

Turismoa :

2020-2026 turismo estrategia :

Iaz "Protourisme" agentziak antolatu turismoaren diagnostikoa eta analisisa egin ondotik, Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluak eta Euskal Hirigune Elkargoak lurraldeei buruzko eztabaidak antolatu dituzte abenduaren 1etik urtarrilaren 12ra bitartean, turismoak honako lau gai hauetan sakontzeko :

- - Harrera eta lurraldearen ezagutzea
- - Aterbetzea
- - Mugikortasuna
- - Ingurumena

Eztabaida horiek etorri dira, Euskal Hirigune Elkargoak abiatu gogoetatik landa, geroan izanen den Ipar Euskal Herriko Turismo Eskemaren plantan ezartzeaz, joan den urriaren 13an. Ondotik lau hitzaldi tematiko izan dira. Gizarte zibileko aktoreek eta hautetsiek turismo arduratsu eta kontrolatuaren garapen ildoak definitzea ahalbidetuko du lekuko eztabaidaren fase berriak. 2022. urtearen hasieran, turismo batzordeak ekarpena egingen dio Euskal Elkargoari, eta horrek eskema burutuko du, ondotik hautetsiek bozkatzeko.

Ekintza-proiektuen sortzeko laguntza :

Beste aldetik, Hazparneko lurralde eremuak AUDAP-en (Atlantikoko eta Pirinioetako hirigintza agentzia) laguntza ukan du turismo-ekintzarako proiektuak garatzeko. 2021. urtearen bukaeran egin ziren bi tailerrek turismo aktibo eta ez-jasanaren garapenerako pistak identifikatu zituzten.

Arberoako ibarra hautatu dute jakinez Hazparneko lurraldeko beste herriekin loturak egin daitezkeela.

Turismo horrek denbora hartu nahi du, lurraldea, lanbideak, biztanleak eta historia ezagutarazteko. Adibidez, herri-kondalariek bisitak antolatuz arte-artisauen tailerretan, ustiatzietan etab.

Concernant notre territoire, le manque voire l'absence d'outils de communication et de valorisation a été également partagé lors des ateliers : support papier, numérique, etc. Plusieurs pistes de travail ont été identifiées en travaillant spécifiquement sur la vallée de l'Arberoue :

- Développer des circuits thématiques en favorisant un tourisme actif
- Améliorer la communication en mettant en réseau les espaces et les acteurs : guide d'accueil
- Affirmer son identité et rendre le territoire « vivant »
- Favoriser la mobilité douce : faire connaître l'offre de la ligne N°13, proposer des découvertes à pied, en vélo électrique, etc.
- Equilibrer la fréquentation dans l'espace et dans le temps en misant notamment sur les ailes de saisons et en ciblant les publics.

Les élus souhaitent à la fois valoriser la vallée mais sans pour autant la rendre trop populaire, au risque de développer un tourisme non maîtrisable. L'objectif est donc de trouver l'équilibre entre développement touristique et fréquentation raisonnée.

La taxe de séjour :

Comme chaque année, vous recouvrez en votre qualité de propriétaire de location classée, la taxe de séjour versée par vos clients.

Jusqu'à présent, les tarifs appliqués par la CAPB étaient inférieurs aux tarifs pratiqués étudiés. Après discussions en commission tourisme et adoption en conseil communautaire, une augmentation des tarifs de la taxe de séjour est applicable à compter du 1er janvier 2022. Les recettes supplémentaires perçues entraîneront une baisse de la subvention versée par la CAPB aux Offices de Tourisme communautaires, et permettront d'engager une réflexion sur le développement d'actions spécifiques pour les hébergements professionnels et d'actions mutualisées entre les Offices de Tourisme communautaires.

Gure lurraldeari dagokionez, komunikazio eta balorazio-tresnen eskasia partekatzen da tailerretan : papera, digitala, etab. Hainbat lan-ildo identifikatzen dira, zehazki, Arberuako ibarran lan eginez :

- - Zirkuitu tematikoak garatzea eta turismo aktiboa bultzatzea.
- - Komunikazioa hobetzea espazioak eta aktoreak sarean jarritz : harrera gida.
- - Bere nortasuna baieztatu eta lurraldea biziarazi.
- -Mugikortasun goxoa bultzatzea 13. linearen eskaintza ezagutaraztea, baita oinez eta bizikleta elektriko ere, ibilaldiak proposatzea
- - Espazioan eta denboran zehar jende kopuruak orekatu, batez ere urtaroen hegalak azkartuz eta publikoak aukeratuz.

Hautetsiek ibarra baloratu nahi dute, baina, hala eta guztiz ere, oso ezaguna egin gabe, turismo masiboaren ez garatzeko. Helburua, beraz, garapen turistikoaren eta jende kopuru arrazoituaren arteko oreka lortzea da.

Egonaldi-zerga :

Urtero bezala, zure bezeroek ordaindu egonaldi-zerga eskuratuko duzu, aterbe sailkatutakoen jabe gisa.

Orain arte, Euskal Elkargoaren prezioak aztertu tarifak baino ttipiagokoak ziren. Turismo-batzordeetan eztabaidatu eta elkargoko kontseiluan onartu ondotik, 2022ko urtarrilaren 1etik goiti egonalditasaren tarifen goratzea gauzatuko da. Bildu diru sartze gehigarriek Euskal Elkargoak elkargoko Turismo Bulegoei eman dirulaguntza jaustea ekarriko dute, eta, denbora berean, gogoeta bat eginen da, egoitza profesionaletarako ekintza bereziak eta elkargoko Turismo Bulegoen arteko ekintzak garatzeari buruz.

La taxe de séjour est applicable au réel à l'année.

Egonaldi-zerga urteko errealari aplikatuko zaio.

Catégorie d'hébergement Egoitza mota	Tarif adopté Hautatutako prezioa	Taxe totale part additionnelle (+ 10 %) comprise Zerga osoa, parte gehigarria barne (%10)
Meublés de tourisme 4 étoiles 4 izarreko turismorako mublaturak	1.79	1.97
Meublés de tourisme ou chambres d'hôtes 3 étoiles 3 izarreko Turismorako mublaturak edo ganberak	1.17	1.29
Meublés de tourisme ou chambres d'hôtes 2 étoiles 2 izarreko Turismorako mublaturak edo ganberak	0.85	0.94
Meublés de tourisme ou chambres d'hôtes 1 étoile Izar bateko Turismorako mublaturak edo ganberak	0.65	0.72
Hébergements sans classement ou en attente de classement Sailkapenik gabeko egoitzak edo beha direnak	5 %	5% + 10%

La taxe de séjour perçue par personne et par nuitée, du 1er janvier au 31 décembre, est encaissée par les hébergeurs auprès de leurs hôtes puis reversée à la C.A.P.B. Les hébergeurs devront procéder à la déclaration en ligne et au reversement de la taxe de séjour encaissée trimestriellement :

- avant le 15 avril, pour le 1er trimestre 2022,
- avant le 15 juillet, pour le 2ème trimestre 2022,
- avant le 15 octobre, pour le 3ème trimestre 2022,
- avant le 15 janvier, pour le 4ème trimestre 2022.

Il est précisé que la taxe de séjour au réel est facturée au client et que le produit est affecté exclusivement aux dépenses destinées à favoriser la fréquentation touristique dans CAPB.

Egoitzen jabeek, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean bilduko duten egonaldi-zerga, hau da, gauka eta pertsonaka, Euskal Elkargoari itzuli beharko diote. Hiru hilabetero, interneten bidez deklaratu dute eta egonaldi-zerga itzuliko

- Apirilaren 15a baino lehen, 2022rako 1. Hiruhilekorako
- Uztailaren 15a baino lehen, 2022. urteko 2. Hiruhilekorako
- Urriaren 15a baino lehen, 2022. urteko 3. Hiruhilekorako
- Urtarrilaren 15a baino lehen, 2022ko 4. hiruhilekorako.

Zehaztu da benetako egonaldi-tasa bezeroari fakturatzeko zaiola, eta produktua Euskal Elkargoren turismoa sustatzeko gastuei bakarrik gehitzen zaiela.

La Communauté d'Agglomération Pays Basque met gratuitement à disposition des hébergeurs une plateforme sécurisée <https://taxedesejour.communaute-paysbasque.fr>, permettant aux hébergeurs d'effectuer en ligne les déclarations et les paiements par prélèvement, virement ou carte bancaire. Le règlement par chèque bancaire reste possible.

Si vous avez besoin d'informations complémentaires, vous pouvez prendre contact avec Cécile EYHERABURU au 05 59 29 62 02, c.eyheraburu@otpaysbasque.com.

Mise à jour des informations pour le site internet

Afin de mettre à jour les informations concernant les gîtes et les locations de meublés de tourisme, nous vous serions reconnaissants de bien vouloir nous faire parvenir par e-mail les modifications à apporter pour la saison 2021: tarifs, descriptions, photos etc. Courriel: mairiearberoue@orange.fr.

Urbanisme- Travaux

Voirie

Cette année les voies Laparre et Oihenarteko bidea ont été rénovées pour un montant de 25930€ subventionnés par le département à hauteur de 10372€.

D'autre part, pour des raisons personnelles, la société Laparrak n'a pu réaliser les travaux d'épaveuse et c'est la société Mattagri d'Hasparren qui a pris le relais.

Les prochaines voies rénovées seront la montée d'Oragarreko bidea, Oilatagerreko bidea de Ipharragerria à Xaparreta et la route d'Aborrothe. Ces travaux seront menés en 2022 sur un programme voirie de 2 ans pour une subvention optimisée du département. A cela s'ajoutera une nouvelle prestation d'épaveuse par la société Mattagri.

Euskal Hirigune Elkargoak urririk jartzen du egoitzetako jabeen eskura plataforma segurua :

<https://taxedesejour.communaute-paysbasque.fr>, jabeek ordainketa-, itzulketa- edo banku-txartelen bidez egin ditzaten deklarapenak eta ordainketak. Bankuko txeke bidezko ordainketa posible da. Informazio gehiago behar baduzu, harremanetan jar zaitezke Cécile EYHERABURU-rekin 05 59 29 62 02 c.eyheraburu@otagribasque.com.

Webguneko informazioen eguneratzea

Aterpetxeen eta turismorako mublatur argibideak eguneratzeko gisan, otoi, e-postaz helaraz iezaguzue 2021eko sasoirako egin behar diren aldaketak : prezioak, deskribapenak, argazkiak, etab. mairiearberoue@orange.fr.

Hirigintza - Obrak

Bideak

Aurten, Laparre eta Oihenarteko bideak arraberrituak izan dira. Guztira 25930€-ko kostua izan du horrek, zeinetan 10372€ departamenduak hartu dituen bere gain. Bestalde, osasun arrazoinengatik, Laparrak elkarteak ezin izan baititu belar mozte lanak egin, Hazparneko Mattagri enpresak ordezkatu du.

Arraberrituak izanen diren hurrengo bideak Oragarreko bideko malda, Ipharragerriatik Xaparretaraino Oilatagerreko bidea eta Aborrothe-ko bidea. Obra horiek 2022an egingen dira, bi urteko programa batean departamenduko diru laguntzek lagundurik. Horri bide bazterretako belar mozte prestazio bat gehituko zaio Mattagri enpresaren partetik.

Sur le plan administratif, l'année 2021 a permis d'avancer sur le diagnostic de l'ensemble des chemins de la commune. Les réunions de travail se poursuivront en 2022 avec l'objectif de déclencher un premier lot de régularisations des cas qui seront jugés prioritaires.

Adressage

Dans le cadre de la réforme de l'adressage, cette année a vu la fin de la nomination des routes et numérotation des maisons. Ainsi, à la suite de la validation des devis et le vote du fond de concours de la CAPB à hauteur de 50% (soit 4570€), les panneaux ont été commandés et reçus. Les panneaux des voies ont été posés en fin d'année dernière. Concernant les plaques numérotées des maisons, un courrier vous sera adressé en temps et en heure pour que vous veniez les récupérer en mairie.

Administrazio mailan, 2021eko urteak herriaren bide guzietan buruzko diagnostikoaren aintzinatzea ahalbidetu du. 2022an lan bilkurek segituko dute, lehentasunezkoak kontsideratuak diren lehen bide batzuen erregulatzeko helburuarekin.

Helbideak

Helbideen erreformaren kari, aurten bideen izendatze eta etxeen zenbatzearen bukaera izan da. Beraz, debisaren baieztatzearen eta Euskal Hirigune Elkargoaren (EHE) 50% ko (4570€) laguntza baten ondotik, panelak manatuak eta errezebituak izan dira. Bideetako panelak joan den urte bukaeran pausatuta izan dira. Etxeen zenbaki plaker dagokienez, momentua izanen delarik gutun bat helaraziko dautzuegu Herriko Etxean errekuera ditzazuen.



Aménagement du bourg

Dans le cadre de l'aménagement du bourg, plusieurs rencontres ont permis de faire avancer le dossier notamment dans la définition de son cadre et des possibilités de subvention. Les services de la CAPB nous ont détaillé les différentes subventions disponibles. Les donamartiritars ont été sollicités pour apporter leurs idées (peu de réponses) et une rencontre avec les jeunes de 12 à 18 ans a eu lieu en mairie en fin d'année pour échanger à ce sujet. Nous avons ensuite entamé les réunions de travail avec le Conseil Architecture Urbanisme Environnement du département (CAUE64) pour la définition du projet en lui-même. Les prochaines réunions devraient permettre de définir le cahier des charges de notre projet afin de lancer les premières consultations.

Plan Local d'Urbanisme intercommunal PLUi

L'Enquête Publique concernant la modification du PLUi du Pays d'Hasparren ne devrait pas tarder à être lancée ! L'année 2021 a vu le dossier bloqué par la MRAe (Mission Régionale d'Autorité environnementale), autorité indépendante dépendant du Conseil Général de l'Environnement et du Développement Durable, qui a donné un avis défavorable à la modification du PLUi avec la demande de lancer une étude environnementale. Le Pôle d'Hasparren a décidé de faire un recours gracieux en modifiant à la marge la modification du PLUi et a reçu un nouvel avis en fin d'année, cette fois favorable. Le recours gracieux du préfet suit toujours son cours mais n'empêche pas la suite de la procédure et l'Enquête Publique devrait démarrer ce début d'année 2022.

Nous rappelons que le PLUi du Pays d'Hasparren est le document d'urbanisme en vigueur à ce jour pour notre commune.

Zentroaren antolaketa

Hiri-barnearen antolaketaren harira, hainbat topaketek dozierraren aintzinamendua ahalbidetu dute, batez ere bere kuadroa eta diru laguntza posibilitateen definitzeko. EHEko zerbitzuek argitu dauzkigute diru-laguntza posibilitate desberdinak. Donamartiritarrak galdezkatuak izan dira heien ideiak emaitako (errantzun guti) eta 12-18 urteko gazteekin bilkura bat antolatu da gai hori aipatzeko. Geroztik Arkitektura Urbanismo Ingurumena Kontseiluarekin lan bilkurak hasi ditugu proiektuaren definitzeko. Hurrengo bilkurak proiektuaren araudiaren definitzea ahalbidetuko du, lehen kontsultazioak abiatzeko.

Lurraldeko Tokiko Hirigintza Plana PLUi

Hazparne Lurraldearen PLUi-aren aldaketari buruzko Inkesta Publikoa laster hasi behar litzateke. 2021. urtean MRA-k (Mission Régionale d'Autorité environnementale) dozierra blokatu du. Ingurumenaren eta Garapen Iraunkorraren Kontseilu Orokorren meneko den autoritate independente honek ezezkoa eman zion PLUi-aren aldaketari, ingurumen mailako ikerketa bat behar baitzen. Hazparneko poloak erabaki zuen errekurtsio bat jartzea PLUiaren aldaketa egokitzeko eta urte bukaeran azkenean baiezkoa jaso zuen. Prefetari helarazitako errekurtsioak bere bidea segitzen du, baina ez du prozeduraren aitzinatzea oztopatzen, beraz 2022an martxan jarri behar litzateke.

Orroitarazten dugu Hazparneko PLUi-a gure herriko gaur egun indarrean den hirigintza dokumentua dela.

Fibre

La fibre déployée sur la commune il y a plus d'un an n'est toujours pas raccordée au nœud principal qui se trouve à Iholdy. Cette phase devrait avoir lieu au premier semestre 2022.

Ecole

Les travaux prévus ont été réalisés, à savoir :

- - Repeindre une classe ;
- - Changer les anciens éclairages par des néons LED ;
- - Installer un lavabo supplémentaire ;
- - Mettre en place une plaque acoustique
- - Modification d'un chéneau.

De plus, en attendant l'aménagement global de l'aire de jeux inclus au projet d'aménagement du bourg, le toboggan a été remplacé.

Travaux d'élagage

Toujours principalement réalisés par des conseillers municipaux, des travaux d'élagage ont été réalisés en décembre sur les voies prévues en réfection sur 2022.

Communication

Les différents moyens d'informations

Plusieurs moyens de communication sont déployés afin de pouvoir informer au mieux les villageois des divers sujets d'actualités concernant le village (conseils municipaux, actualité intercommunale, associative, autre...).

Ces moyens de communication sont le bulletin municipal annuel, le bulletin d'information, la page Facebook de la Commune ainsi que le site internet de la Commune.

Pour ceux qui souhaitent recevoir le bulletin d'information par mail, n'hésitez pas à vous inscrire en contactant la mairie par mail (mairie.arberoue@orange.fr) ou bien par téléphone au 05 59 29 52 27.

Fibra

Duela urte bat baino gehiago ezarri zuten zuntza (fibra) herrian, baina oraindik ez zaio Iholdiko korapilo nagusiari lotu. Fase hori 2022ko lehen lauhilekoan abiatu behar litzateke.

Eskola

Aurreikusiak ziren obrak gauzatu dira, hala nola :

- Gelaz berriz pintatu
- Argi zaharrak LED neon-ekin aldatu
- Lavabo bat gehitu
- Plaka akustiko bat plantan ezarri
- Kanal bat aldatu

Gainerat, herri zentroaren proiektuan sartzen den joko espazioaren antolaketaren anartean, tobogantea ordezkaturik izan da.

Mozkintze obrak

Batez ere herri kontseilariak berek eginik, egur mozte obrak abenduan eginak izan dira ko aurreikusiak diren bideetan.

Komunikazioa

Informatzeko baliabide desberdinak

Komunikazio tresna desberdinak erabiltzen dira herritarrei berriak helarazteko (herriko kontseiluak, herriarteko berriak, elkarteen berriak, beste...).

Komunikatzeko tresnak hauek dira: herriko aldizkaria (urtekaria), berripapera, herriaren Facebook orria eta webgunea.

Berripapera e-mail bidez errezibitu nahi baduzue, Herriko Etxera idatzi edo deitzen ahal duzue (mairie.arberoue@orange.fr eta 05 59 29 52 27).

Bilinguisme Français / Euskara

La municipalité veille à ce que l'ensemble des communications destinées aux administrés soit réalisé en bilingue. A cet effet une commission extramunicipale Euskara a été mise en place par la municipalité et est pilotée par Xabi Thicoipe et a pour objectif d'œuvrer à l'utilisation de l'euskara.

Charte locale

La municipalité s'est également engagée à signer la Charte Locale des langues minoritaires. Cette charte a pour but d'inscrire la commune dans une démarche de préservation de l'euskara auprès du Conseil de l'Europe. Après avoir délibéré sur sa volonté de signer et après avoir choisi les 34 critères, la signature officielle initialement prévue le 3 décembre (journée internationale de la langue basque) a été repoussée au 11 mars 2022 en raison de l'absence des représentants du Conseil de l'Europe.

Associations - Culture

Projet « Eltzarruzeko Oihartzuna »

Lauréat d'un appel à projet émis par l'Agglo Pays Basque / Leader montagne Basque et co-financé par les Communes de Saint Martin d'Arberoue et de Saint Esteben, le sculpteur installé au château de Garroa à Mendionde, Régis Pochelu, a mis en oeuvre un projet autour d'Eltzarruze (St Martin d'Arberoue – St Esteben). Il s'agissait « d'encourager et de valoriser la dynamique des initiatives qui viennent (re)créer du lien social sur le territoire de la montagne basque ». Un projet de sculpture sur un rocher de l'ancienne carrière a donc été mis en oeuvre avec pugnacité par Régis Pochelu malgré un contexte de doute et d'incertitude du fait de l'épisode Covid-19.

Frantsesa/Euskara elebitasuna

Herriko Etxeak zainduko du herritarrei helaraziko dien informazio guzia elebidunez emaita. Hain zuzen ere, euskara batzorde bat sortua izan da eta Xabi Thicoipek du kudeatzen, helburua euskararen erabilera emendatzea izanik.

Tokiko ituna

Herriko Etxea hizkuntza gutxituen tokiko ituna izenpetzera engaiatu da. Dokumentu horren helburua Herriko Etxeak euskararen biziberritzean engaiatzea da, Europako Kontseiluaren gidaritzapean. Izenpetzeko borondatea erakutsi ondotik eta 34 irizpide onarturik, hastapenean abenduaren 3an (euskararen nazioarteko egunean) finkatu zen ofizialki izenpetzeko eguna; baina Europako Kontseiluko ordezkariarik ezinenez etorri, data gibelatu da 2022ko martxoaren 22rat.

Elkarteak – Kultura


« Eltzarruzeko oihartzuna » proiektua

Euskal Elkargoa eta Euskal Mendiak bultzatu proiektu deialdi baten irabazle atera den Lekorne Garroako Régis Pochelu zizelkariak, Eltzarruzen, proiektu bat muntatu du. Proiektu hori Donamartiriko eta Donoztiriko herriek ere finantzatu dute parte.

Proiektu deialdiaren adierazpenaren arabera, "Euskal mendietan gizarte lotura sortzea helburutzat duten ekimenen dinamika sustatzea eta baloratzea" zen. Harrobi ohiko harri baten zizelketa proiektu bat, Régis Pocheluk, inpugnazioz abiatu zuen, Covid-19ak sortutako textuingurua zalantzazkoa izanikan ere.

Ainsi la jeune génération est allée à la rencontre des « anciens » pour recueillir leurs témoignages sur leurs liens avec ce massif calcaire. Cette histoire-là, mêlée à la mythologie, a ensuite été contée aux enfants des écoles (RPI St Esteben/St Martin d'Arberoue et Arkeroako Ikastola) par les Raconteurs de Pays et Xan Errotabehere. Régis Pochelu est ensuite intervenu pour présenter son métier ainsi qu'une approche sur la symbolique.

Après six heures d'intervention dans chaque école et grâce à la participation de chaque élève, l'artiste a confectionné un dessin issu des différentes réflexions des enfants et des thèmes qui ont été mis en évidence à savoir la Vie et la Force (puissance).



SYMBOLISME (par Régis Pochelu) :
« La montagne nous regarde, elle nous parle, nous dit que nous sommes tous concernés par sa sauvegarde. C'est son œil qui s'adresse à chacun de celle et celui qui le regarde.

Mais c'est aussi le Troisième œil : celui de la conscience, de la connaissance de Soi. Ainsi, la montagne nous soumet à nos propres responsabilités en termes de respect. Elle nous invite à une introspection, une observation de nos propres états de conscience. Sa pupille rend hommage à Mère-Nature (Amalur) par ce symbole universel de la Fleur de Vie.

Belaunaldi gaztea aintzineko belaunaldiarekin elkartu da azken honek kareharri horrekin duen loturaz lekukotasunak biltzeko. Mitologiarekin loturiko ixtoria, eskoletako hurrei (Eskola publiko eta ikastola) kontatu zien Xan Errotabeherek. Regis Pocheluk, gero, bere lanbidea eta sinbolikari buruzko ikuspegi bat aurkeztu die.

Eskola bakoitzean sei orduz egon ondoren eta ikasle bakoitzaren parte-hartzeari esker, artistak marrazki bat egin du haurren gogoetatik abiatuak, bizia eta indarra gaien inguruan.



SINBOLISMOA (Régis Pochelu-ren arabera) :
« Mendiak begiratzen eta hitzegiten digu, denek babestu behar dugula erraiten digu. Haren begia begiratzen dion bakoitzari zuzendua zaio ».

Hirugarren begia ere da, kontzientziarena, norberaren buruaren ezagutzarena. Horrela, mendiak norbera gure arduren aintzinean jartzen gaitu errespetuari dagokionez. Gutariko bakoitza bere barne eta konzientziaren aztertzeraz gonbidatzen gaitu. Bere begi-niniak Amalurra omentzen du bizitzaren lorearen sinbolo unibertsal horri esker.

Dessous, le Monde Souterrain, territoire des Laminak dont les empreintes marquent leurs allées et venues. Lieu également des sources qui alimentent onze villages alentours, qui abreuvent tant d'êtres vivants : eau comme source de Vie. Elle est symbolisée par « l'image fixe » d'une rivière qui coule, qui circule perpétuellement, comme le sang dans nos veines...

Les élèves, à travers leurs propres symboles, ont su exprimer une émotion, une pensée. Cette démarche fut un moment singulier, intense, un préambule pour « personnifier » la montagne et dire pour elle, ce qui leur paraissait important.

L'amour et le respect de la Nature montre bien une conscience présente et éveillée, déjà ancrée à leur âge : prendre soin de notre planète. »

Une journée d'inauguration de la sculpture en présence des enfants, de la famille Mendiburu propriétaire des lieux, des villageois et des curieux a eu lieu le 20 juin 2021. Régis Pochelu a pu présenter la démarche et expliquer le travail mené avec les enfants et les conteurs de pays. Après la réalisation d'un auresku la journée s'est poursuivie autour de temps d'échanges, de discussions et de musique sur le massif d'Eltzarruze, clôturant ainsi en beauté un projet partagé et fédérateur autour d'un patrimoine à valoriser et à préserver.



Horren azpian, lur azpiko mundua, Laminen lurraldea. Horien joan jinak ageri dira hatzen bidez.

Inguruan dauden 11 herri elikatzen dituzten iturrien lekua, hainbeste izaki bizidun elikatzen dituztenak : ura, Bizitzaren iturri. Ura « ibai baten irudi finkoak » sinbolizatzen du, etengabe ibilki dena, odola gure zainetan dabilan bezala.

Ikasleek, beren sinboloen bidez, emozio bat edo gogoeta bat adierazten jakin dute. Urrats hura momentu berezia izan da, ikasleei ahalbidetu baitdie mendiaren pertsonafikatzea eta mendiarentzat garrantzitsua dena aipatu dutelako.

Izadiaren maitasuna eta errespetua jadanik haurren baitan da, horien adinean garrantzitsua zaie amalurra zaintzea. »

2021ko ekainaren 21an, zizelkaduraren inaugurazio eguna izan da, haurren, lur horien jabe den Mendiburu familiaren eta herritarren presentziarekin. Régis Pocheluk bere desmarta, ikasleekin eta herriko kondalariekin eraman lana aurkeztu ditu. Auresku dantza baten ondotik, egunak segitu du trukaketa eta musika ezberdinen inguruan, ondarearen eta izadiaren babesaren inguruan federetzailea izan den proiektu eder bati bururapena emanaz.

Animations de l'été 2021 par toutes les associations du village

En continuité de la première rencontre de 2020, les associations du village dans le cadre d'un calendrier d'animations estivales partagées a pu proposer tout au long de l'été 2021 diverses animations à destination des villageois, des vacanciers et des curieux.

Ainsi tout au long du mois de juillet, mutxikos, marché de producteurs, expositions d'artistes, balades racontées, force basque, pelote ont rythmé chaque vendredi sous l'odeur des grillades et des talos servis par les jeunes du village. Une journée de villageois avec en préambule une messe animée par la chorale a permis également à l'ensemble des villageois de se retrouver à Bil Etxea.

Malgré un contexte sanitaire particulier, ces animations ont pu permettre à chacun de se retrouver autour de moments conviviaux, et les retours sur ces animations ont été très positifs.

La municipalité souhaite remercier l'ensemble des associations et des acteurs qui se sont mobilisés, et invitera prochainement les associations à échanger sur un projet d'animation pour 2022.

Un guide des associations est disponible en mairie.

Udako animazioak herriko elkarteengandik

2020ko lehen topaketaren harira, herriko elkarteek udako animazioak segurtatu dituzte.

Horrela, uztaila eta agorrilean, ostiral guziz, elkarte ezberdinek, mutxiko, ekoizleen merkatu, artisten erakusketa, pilota eta indar joko animazioak proposatu dituzte, herriko gazteek taloei eta ihiztariak horien janari prestatuari esker jendea elikatzen zutelarik.

Uda honetan, herritarren eguna ere iragan da Bil Etxea gelan, koralak animatu meza baten ondotik.

Osagarri egoera berezia izan arren, animazio ezberdin horiek herritarrei gustatu zaizkiete momentu goxoak pasatzea ahalbidetu dizkietelako.

Donamartiriko herriak eskerrak eman nahi dizkie udan animazioak segurtatu dituzten elkartei, eta deia luzatu die 2022ko animazioei pentsa dezaten.

Elkarteen gida bat eskuragarri da herriko etxean.



Commissions extra-municipales

Lors du conseil municipal du 2 novembre 2021 le conseil municipal a délibéré sur la création de deux commissions extramunicipales.

La première commission extramunicipale sur l'Euskara sera pilotée par Xabi Thicoipe et aura pour objectif un travail sur la communication en bilingue et le développement de l'utilisation de l'euskara. La seconde commission sera pilotée par Nicolas Elissalde et aura pour objet le patrimoine matériel et immatériel de la commune. Une feuille de route de cette commission devra être validée par le conseil municipal prochainement pour valider et prioriser certaines actions.

L'objectif est que ces commissions soient actives dès le début 2022. Si vous souhaitez y participer merci de contacter la mairie par téléphone ou par mail.

